

**Luis Alberto  
Hernando eta  
Andrea Gil  
irabazle Gorbeia  
Suzien Ternuan**

11. orrialdea

## Lemoako Kultura Prozesua

Lemoako aisialdi eta kultura zerbitzuak berrantolatuteko, Kultur ize-  
neko proiektuko lehen lan saioa izango da urri bigarrenaren 5ean.  
Ikerketea definitu ostean, herritarrak kultura zerbitzuak diseinatu  
dabez. Hau egiteko Maraka taldearen laguntza teknikoa izango  
dabe. **12. orrialdea**



**"Tubi" k marka  
barria Euskal  
Herriko Lasto  
Altxatze  
Txapelketan**

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 259

2016ko urri bigarrenaren 3a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## Argazki Lehiaketako irabazlea

Katalunian ateratako argazki  
honez irabazi dau Aitor Arnaizek  
aurtengo oporretako BEGITUko Argazki  
Lehiaketea. Nafarroako landetxe  
baten lagun birentzako astegoieneko  
egonaldia izango dau sarizat.

**B**igarren saria Iñaki Lejarretak irabazi dau eta AMEko dendetan gastetako 50 euroko bonoa eskuratuko dau. Aurtun, aitamen berezi bi, edo hirugarren sari bi, be emon gura izan dauz BEGITUk. Arantza Iruretagoienaren "Ura" eta Olatz Landajoren "Zarautz" argazkientzat dira aitamen berezi horreek eta kami-

seta bana jasoko dabe egileak.

Larogeta bost argazki bialdu dabez 34 irakurlek, euren oporrek beste irakurleakaz konpartiduteko. Horreetako batzuk, zenbaki honetako erdiko orrialdeetara ekarri doguz, baina danak ikusi gura ezker, [www.begitu.org](http://www.begitu.org) jo behar da, gure webgunean egongo dira eta. **8. eta 9. orrialdeak**



Aitor Arnaizek Katalunian ateratako argazkia.

### ARANTZAZU

#### Sanfaustoak Arantzazun

Hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabe Arantzazun udagoieneko herriko jaiak ospatuteko. Izan be, Arantzazun sanpedroetan eta sanfaustoetan ospatuten ditue herriko jaiak. Sanfaustoak urri bigarrenaren 14an hasiko dira eta 16an amaitu.

Jai egitarauaren barruan, Arginatx Mendi Taldeak Arantzazuko Mugarri Bira mendi ibilaldia antolatu dau. Hilaren 15ean izango da eta 9 km.ko ibilbidea dauka. Erdia egiteko aukerea be badago. Martxa honek Arantzazu inguruko mendiak ezetuten emotea dauka helburu.

Martxearen ostean, herritarrak frontoian batuko dira babajana egiteko jai giro ederrean. Bariku eta zapatu gaubean kontzertuak egongo dira Herriko Tabernan.

**5. orrialdea**

### ARRATIA

#### EAJ-PNVk lortu ditu boto gehien

Urri lehenengoaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, BEGITUREN eremua osotuten daben 10 herrietan, guztira, EAJ-PNVk lortu ebazan boto gehien eta EH Bildu izan zan bigarren indarra. Legebiltzarrean eserlekua lortu daben partiduak, herri bakoitzean, hau da, Arantzazun, Areatzan, Artean, Bedian, Diman, Igorren, Lemoan, Ubiden, Zeanurin eta Zeberion lortutako botoak dagoz 7. orrialdean.

**7. orrialdea**

### IGORRE

#### Jubiladuak herria aztertuko dabe

Herriko gizarte eta osasun zerbitzuak, aire zabaleko espazio eta erai-kinak, garraioa, eta errespetua eta inklusioa aztertuko dabez Igorreko jubiladuak eta horretarako Bizi izeneko programea ipini dau martxan Udalak. Izan be, Igorrek edadekoakaz herri adeitsua izan gura dau eta, Jubiladuen alkartearen ekimenez, Dublineko deklarazioa sinatu dau Igorrek eta uri adeitsuen sarean sartzeako beharrean hasi da.

**5. orrialdea**



Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
helbidera neurria adierazoz





## ZEURE BERBEA

### Arratiako Altxorra jolasa

Badira gure artean uste dabena euskalkiak edo herrian herriko hizkerak, arbuiatzeko modukoak dirala, euskera batu eta bakarraren izenean. Niretzat, oster, kontua alderantzizkoa da. Zaila izango jaku euskera batu koloretu eta zaportsua eskuratzea, tokian tokikoak bazter itxen badoguz. Horregaitik dira egoki, bai egoki, eta ordezkazinak halako lanak, Arratiako altxorra jolasa tankerakoak, horreek erakutsi ez eze, bameratu eta bizibidetu dabete. Eguneroko euskera bizitik euskera bera doitzea eta gaitzea, euskaldun guztien artean komunikabide egokia izan daigun. Beto, beraz, halako ekimenak, eta gauza izan gaitzan, Euskal Herri osoan, guretik hasi eta ikasiaren bidez, besteai eta besteei be, zabaltzeko eta hedatzeko.

Alkarregaz erabili daigun euskerrea, horixe da eta gure hizkuntza eta altxorra! Atxiki daigun euskereal

ANDRES URRUTIA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen keak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:  
Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

## ERETXIA

### Musika hezkuntzaren onurak

Udako oporren ostean, familiak eta umeak egunerokotasunera bueltetan dira. Momentu honetan gurasoak ebazten dabe eskolatik kanpoko ze jarduera izan daitezke onak euren seme-alabentzat, zeintzuk joan jakiez ondo eta zeintzuk ez deutsee merezidu jarraitutea, umeak ez dabelako gozatuten edo ez deutseelako ekarpenik egiten.

Eskolatik kanpoko jarduerarik onuragarrietako bat musikea ikastea da. Jarduera honek buztartzen ditu alde ludikoa eta atentzino handia behar daben ariketak. Horregaitik, eta eskolatik urtendakoan be atentzino handia eskatzen daualako, ikasle zein gurasoen aldetik motibazino handia behar da aurrera aterateko. Gurasoak seme-alabai laguntasuna emon behar deutsee, ezpabere ikasleak egin behar daben ahalgin estra horrek atzera botatea ekarri leike.

Antxinatik musikea magikotzat jo da, ezin zalako esplikau gizakiarengan daukazan ondorioak. Egun, neurozientziari esker, musikea entzuteak edo joteak eragiten deuskuzan emozinoak azaldu leikez. Musikea kultura guztietan dago, gizakiaren esperientzia personal, kultural edo sozialen ondorioz, modu formal edo informalean, eta beraz, ez da batzuen pribilegioa, persona guztien jarduera naturala baino. Musikea entzuteak edo joteak, danok konpartiduten dogun abilitade bat dakar.

Frogatuta dago musikeak gure sistema guztietan (emozino-sisteman, fisiologikoan eta kognitiboan) daukala eragina, zehaztasun linguistiko eta matematikoak (ezkerreko hemisferioa), eduki barri eta sortzaileak (eskoiko hemisferioa) konbinatuz. Horregaitik, instrumentu bat jo edo kantuan egiten dogunean, burmuinean su artifizialak biztuten



**PATRICIA MIÑANA**  
Musika eta piano pedagogiako irakaslea

jakuz. Ariketa neuronal konplejua da, eta lana eta ahaleginaren bidez, buruko funtzinoak indartzen ditu. Eta indartze horrek beste gaitasun batzuei apliketea ahalbidetzen dau. Adibidez, ugari eta oso ezagunak dira persona tartamutuen kasuak; honeetako askok kantuan ez dabe izaten ezelango komunikazino arazorik.

Musika heziketak dakarzan onurak ume baten formakuntzan, honeek dira:

Psikomotrizidadearen garapena. Pentsamentu logiko-matematikoa garatzen dau eritmoa eta soinuak ulertzeko beharrezkoa da-eta. Era berean, gaitasun logikoa garatzen dau, eduki musikal bat aztertu, atondu eta joteko gai dalako umea.

Hizkuntza gaitasuna. Kantuen bidez umeak hiztegia aberasten dau, musika-hizkuntza ikasten dau bere interpretazino sinbolikoagaz eta beste hizkuntzak ikastea erretzen dau. Gainera, sentimentuak eta emozinoak deskribiduten ikasten dau umeak,

beste ume batzuekatz batera.

Sormena. Umeak sormena espermentazino eta jolasaren bidez garatuten dabe eta honek eragin zuzena dauka oroimenean, oroitzenak modu azkarrago eta eraginkoragoan sortu, bildu eta berreskuratzeke gai bihurtzen ditualako. Ikerketak erakusten dabe musikariok etiketa bat baino gehiago ipinten deutsegula oroitzen bakotxari: emozionala, entzutezkoa, konzeptuala, testuinguruko... Horrek lagundu leikio umeari, sormena erabiliz arazoak konpontzen-modu eraginkorrean, eskolan zein gizartean.

Arreta gaitasuna, norbere buruari entzutea eta autoestimua. Ahalegin, arreta eta konzentrazino gaitasunak garatuten ditu musika ikasteak eta egindako esfortzuak emoitza ona daukanean, umeari poza emoten deutso, bere motibazino eta autoestimua indartuz.

Musika eragiketa baten, aldaketa neurokimikoak gertatzen dira eta plazerraren zentroan eta animoan eragiten dabe. Holakoetan, dopamina eta oxiotzina botaten doguz. Honek, plazerra sentiduteko gaitasuna, lotura soziala eta konfiantza sensazino sortzean ditu, bildur soziala gitxitzen dau gure goputzari ondo egote sensazino emonez eta espresa kenduz. Mundu guztiak ezetuten dau musikearen balio terapeutikoa.

Horregaitik pentsetan dot asko dirala umearen formazino osoari musikeak egin leikiozan ekarpenak. Askotan, gure hezkuntza sistemea anakronikoa da. Egungo gizarteak gazte sortzaile eta motibatuak behar ditu eta musikeak jarkera horreek zuzenean landu eta garatuten ditu. Ez dago osoko garapenik arte barik eta herrialde askok euren konstituzinoan jasoten dabe umeen hezkuntzan, hezkuntza artistikoa jasoteko eskubidea. Nik neuk uste dot ume bateri egin ahal jakon oparirik onena musika eskolak dirala, baita musikea ikasten jarraituten ez badau be, ze, seguru asko gaitasun horreek bizitza osoan izango ditu.

\* Erredakzinoan itzulia

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Nagusi



Etxe, herri, enpresa edo bestelako alkarreterako buru, jaun edo ugazaba, hau da, ardurarik edo aginterik handiena daukanari deritzogu nagusi/nagosi (nausie edo neusie, agoskatuta). Berba hau adjetibo lez be erabili leiteke, itzel edo handi adierazoteko: errekanagusi (Arratia errekeari esaten eutsien lehen), eulinagusi, harrinagusi edo haixenagusi, esate baterako: "Aurreko asteko haixenagusiak etxe baten hormea bota eban lurrera". Garrantzitsu edo zahar esangurakaz be erabilten da: etxenagusi, meza nagusi, seme/alaba nagusi...



**LUMATUTEN****IGOR ESTANKONA****Nork hil ginduzan?**

**L**errock idazten dodazan bitartean, Frankismoaren kontrako Argentinako kereilearen barruan da deklaratzeko, Gernikako epaitegi-tan, Gorka Sagarna: txakurren pare tiroz hil, Markinatik zehar kamioian eroan, hobian lur biluziaren azpian sartu eben Jose Sagarna abadearen iloba.

Eta bitartean ni Igorreko bonbardaketearen inguruan Angelek zein Ekainek bildutako dokumentazio baliotsuan, mingarrian, uneka lotsagarrian agirika, zelan hil eben 15 urteko neskatila guria, komandante bipila, lau urteko umea, Arratia ibaiaren ertzean.


Nork hil ginduzan hogeta hamazazpian? Ez jataz larregi gustetan erantzun sinpleak. Esan geinke: Espainiako gerra zibilean euskaldun gizajooi jausi jakun Gernika bete bonba, faxistak hain ziran itsuak hain kriminalak gu osteraz zerura begira hurrengo zigorra nondik

etorriko, idi orgaren gainean jezarrita.

Esan geinke, eta egia liteke baita: defendidu genduan gudarien odolagaz herritar guztien adorea-gaz hogeigarren mendeko dezentzia faxismoaren aurrean, bakarrik itxi ginduzan Ingalaterrak, bakarrik Europak, esku hutsakaz eta sobietarren burdin ugartuakaz eutsi geuntsan. Eta eutsi geuntsalako gagoz hemen, oraindino nonor euskaldunok, burrukatu ginanok.

Eta hainbeste gauza esan geinkez: batzuk eleiza, beste batzuk Jaurlaritza, beste batzuk iraultza, anai-arreben artean joka joan jakuzan guri indarrak gerran. Oraindino be halaxe joakuz.

Eta gaur Gernikako epaitegi batera joan behar zeanuriztarrak, joaten diran antzera susmagarriak euren burua zuritzera. Osaba abadearen meza-mutila zan Juan Zabalak ikusi eban, hogeta hamaseian, odolez betetako gorputza zelan enterrau eben. Harek markau eban hilobia lantzean-lantzean, palu bat lurrean sartuta. Gaur arte.

**ZERTZEAN****BEGITU**

\* "IspilSelfie" Luis Carlos Bilbaok BEGITUko oporretako Argazki Lehiaketarako bialdutako irudia.

**BEGI TXINDORRA**

**B**ediako pelotalekuaren atzekaldean Gorbeiaiko Itxinako mendiak erakusten dauzan mural bat dago. 2014an suak hartu eban frontoia eta kopontzeko lanak aurten amaitu ditue. Murala Getxoko 400muralismo diseinu-estudioko Iciar Nieto diseinatzaile grafikoak eta Migel Atutxa margolari eta diseinatzaileak egin dabe. Holan, Arratiako iparraldeko atean, beste muturrean dagozan bailararen ikur diran mendiak iragarten dira. Arratia non hasten dan argi itxiz.

Mendi ederrak dira Itxinakoak, eta ederra da murala. Ez dira gauza bera gauza bat eta bere irudia, baina batzuetan, irudiak originalaren ezaugarriak hartzean ditu. Frontoi ondoko zelaiak, arbolak eta gaineko zeruak lagunduten dabe Itxina irudikatzen, bertara ailegau barik be ikusten.

Baina muralak Gorbeiairen beste ezaugarri bat be badauka. Tontorrera ailegetea bezain gatxa da muralera hurreratzea. Eta zeharkako ikuspegia baino ez dogu lortu.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



## ARANTZAZU

# Sanfaustoak, udagoieneko jaiak

### Erredakzioa

Herriko jai bi ospatzen dabez Arantzazun, sanpedroak uda hasieran eta sanfaustoak udagoienean. Urri bigarrenaren 14an hasita eta 16ra arte, udagoieneko jaiak ospatuko dabez Arantzazun.

Urriko jaiak udakoak baino egitarau apalagoa daukien arren, musikea, babajana, ibilaldia menditik eta jai giroa ez dira faltauko Arantzazu inguruan.

### Urri bigarrenak 14, barikua

19:00etan, jai hasikerako txupina.

19:15ean, buruhandiak.

19:30ean, pala partidua (desafioa).

21:30ean, Esti eta Olatzen kontzertua Herriko Tabernan.

### Urri bigarrenak 15, zapatua

09:30ean, Mugari Bira mendi martxa.

13:00etan, babajana frontoian.

21:00etan, musikea Herriko Tabernan, gazteen eskutik.

### Urri bigarrenak 16, domekea

12:30ean, trikipoteoa.

17:00etan, Mus eta Tute Txapelketak (sariak: gaztaia eta ardoa) eta antzerkia.



## IGORRE

# Bizkaiko produktuak Garbeko Azokan

### Erredakzioa

Arratian tradizionorik handienetakoa daukan baserriko produktuen azokea, Garbeko Azokea, urri bigarrenaren 9an izango da eta antolatzaileak, bertan 31 ekoizle inguru batzea espero dabe.

Azokan erosi ahal izango diran produkturik gehienak Bizkaiko baserrietakoak izango dira eta horreetatik hainbat, Arratiakoak. Ortuariak, frutak, lorak, gaztaia, pastelak, eztiak eta artisautzarik bitxiena erosteko aukerea egongo da Garben.

Goizeko hamarretarako prest egongo dira postu guztiak. Aurtentzen, barrikuntza moduan, azkora erakustaldi bat egongo da azoka gunean. Aizkolariak nortzuk izan-

go diran, ez dagoala konfirmata baina Arratiakoak izango dirala azaldu deutso BEGITURI Xabier Altube antolakuntzakoak.



## IGORRE

# Herria aztertuko dabe jubiladuak



### Bizi programearen aurkezpena.

### Erredakzioa

Herriko gizarte eta osasun zerbitzuak, aire zabaleko espazio eta eraikinak, garraioa, eta errespetua eta inklusioa aztertuko daz Igorreko adineko jentek. Bizi programearen barruan, egingo dabe azterketea, lau saiotan. Bizi programea urri lehenengoaren 20an, aurkeztu eben Beinat Anzola Igorreko alkateak, Itsaso Bengoetxea zinegotziak eta Maraka taldeko Eider Aldapek. Honen helburua herria edadeko jentegaz adeitsuagoa izatea da. Horretarako, OMEk (Osasun Mundu Erakundea) ezarrita daukaz emon beharreko pausak. Igorrek adinekoak herri adeitsuen sarean sartzeako asmoa dauka.

Proiektua jubiladuen alkartetik sortu zan. Igorreko Jubiladuen alkarteko zuzendaritza batzor-

deak Nagusiak Bizkaiko Plataforman hartzean dau parte eta handik ekarri eben zahartze aktiboaren aldeko mundu mailako mobimentu horren barri. Igorre edadekoentzat bizigarriago egin guran, udalera jo eben alkatetakoak. "Ongizateko komisinoan tratau genduan eta danoi iruditu jakun idea polita. Hau martian edo aprilean izan zan. Maiatzean Durangora joan ginan. Durango herri adeitsuen sarean sartu da eta diagnostikoa egin dau eta diagnostikoa ikustera joan ginan. Proiektu hau bultzatzeko diru partida bat ipintea ebatzi genduan eta garagarrilean plenoan onartu zan. Dublineko deklarazioa, sare horretan sartzea eta diagnostikoagaz hastea onartu genduan" azaldu deutso BEGITURI Itsaso Bengoetxea Ongizate zinegotziak.

Diagnostikoagaz hasiko dira orain. Asmoa da hemendik Gabonetarako eginda izatea eta diagnostikoaren ondorioz aukeratu-tako lau gaietan, ekintza plan bat garatzea hurrengo urteai begira.

### Ikertu eta sortu

Proiektuak fase bi daukaz. Lehenengoan, Ikertu izenekoan, espazio, zerbitzu eta baliabideen azterketea egingo dabe. Horretarako saio bi egongo dira: urri bigarrenaren 6an bat eta zementiaren 3an bestea.

Bigarren fasean, Sortu izenekoan, ideak eta proposamenak jasoko dira. Saiok zementiaren 24an eta abenduaren 15ean izango dira.

### Herri adeitsua danontzat onuragarri

OMEren arabera, 2050. urtean munduko biztanleriaren herenak 65 urte baino gehiago izango ditu. Horrek erronka handia suposatuko deutse osasun sistemai eta ongizate sistemai, besteak beste. Ingurune adeitsuak bizi independentea, zahartze aktiboa eta personen autonomia ahalbidetzen dabez, parte hartze eta segurtasun aukerak gehitu eta bizi kalidadea hobetu.

Udalekoen ustez, adinekoen parte hartzea herri osoarentzat da onuragarria. Izan be, "herriaren azterketea adinekoen ikuspuntutik egiteak herritar guztientzako etorkizuneko gune eta zerbitzu irisgarri eta inklusiboagoak diseinetzea ekarriko dau".

## ARRATIA

# Errota proiektuak koordinatzailea behar dau

### Erredakzioa

Errota, Arratiako Garapenerako proiektuak, hurrengo urteotako erronkak aztertu ebazan aurreko ikasturtean eta horreek aurrera erosteko koordinatzaile bila dabil.

Koordinatzaileak zortzi erronka atera behar daz aurrera Errotako eragileak batera. Ikas komunitate lankidetzara foroa sortu, baloreetan oinarritutako hezkuntza sareteko; ekintzailatza kultura eta gizarte ekonomiaren baloreak herritarrengan sustatu eta enpresea jentegaz konektatu; eskualdearen nortasuna eta identitatea indartu eta zabaltu, hala nola, Arratiera (hizkera) be balioan ipiniz, Arratia

erakargarria izateko; nekazaritza, basogintza eta abeltzaintzari babesa emon eta indartu; enpresa foroa sortu industria sektoreko enpresen lehiakortasuna hobetu eta beharizanai erantzuteko; enplegu sorrera eta mantentzea modu aktiboan bultzatu; merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresak lehiakorragoak egitea ahalbidetuko daben lehen pausak emoten lagundu, foro desbardinaren sorrera bultzatu, eta sektore publikoagaz batera herritar eta eragileen beharizanak identifiketako alkarlana bultzatu.

Koordinatzaile lanerako eskatzen da unibersidade mailako ikasketak izatea, Enpresa zuzendaritza, Ekonomia edo antzekoetan; antzeko

lanetan eskarmentua; gizarte eta eragile ekonomikoaren artean lan egiteko ohiturea; euskera eta gaztelania maila ona eta IKTak menperatzea. Izakera aldetik, jarkera konprometidua, izakera planifikaua eta dinamikoa, jentaurerako hartu-emonetarako eta komuniketako gaitasuna eta lidergotza.

Gida baimena eta autoa be izan behar dabe interesdunak.

Curriculumak info@errota.eus helbidera bialdu behar dira hilaren 15a baino lehenago.



ARANTZAZU



**Arantzazuko Udalak eta jai batzordeak**

**JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ**



## ARRATIA

**Beldur barik, eraso sexisten aurrean jarkera aktiboa bultzatzeko lehiaketea zabalik dago****Erredakzioa**

Arratiako gazteak, zemendiaren 9ra arte, aurkeztu daiek ez ikus-entzuzkoak Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeako. Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasan Zerbitzuak Beldur Barik Lehiaketea antolatuko dau aurten bosgarrenez.

Helburua andranganako indarkeria prebenidutea da, bere adierazpide guztietan eta beren-beregi, neska gazteak jasaten daben indarkeria. "Horretarako, neskai behar diran tresnak eta baliabideak emongo jakiez, indarkeria sexisteia ezetu eta aintzat hartuteko, eta mutilakaz, jarkera sexistai aurre egiteko neuriak landuko dira. Azken finean, neska-mutilak eraso sexisten aurrean zer-regin aktiboa izatea lortu gura da" dinoe Bardintasan Zerbitzutiak.

**Parte hartzea**

Lanak errespetuan, bardintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren kontrako konpromiso sendoan oi-

narritutako jarkerak ikustarazo behar dabez. Proiektu guztiak ikus-entzuzko formatuan aurkeztu behar dira eta Arratiako 12 eta 26 urte bitarteko gazteak hartu daikie parte.

Parte hartzeako [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) webgunean dagoan formularioa bete behar da. Behin formularioa beteta eta plataforma bidez igorrita, mezu bat azalduko da webgunean adieraziz izen emotea modu egokian egin dala. Horretaz gainera, erantzun automatikoa bidaliko da email helbidera baieztatzeke lana jaso dala.

**Sariak**

Lehiaketa bikotxa da: alde batetik, Lehiaketa globala eta, bestetik, Arratiako Lehiaketea. Arratian, lehenengo kategoriako saria (12-17 urte), 300 eurokoa izango da eta bigarren kategoriako (18-26 urte), beste 300 euro.

Arratiako sari banaketea Diman izango da, zemendiaren 25ean, eta lehiaketa globalaren topaketa eta sari banaketea Urdulizen.

## IGORRE

**Batz Kooperatibeak Araluce enpresea erosi dau****Igorreko Araluce enpresea.****Erredakzioa**

Batz Kooperatibeak bagilean Igorren dagoan Araluce enpresea erosi eban. Holan, Batz-eko iturrien arabera, Batzek bere lan gaitasunari urtean 200.000 ordu gehituko deutzaz. 2016-2020 Plan Estrategikoko funtsezko inbersinoa da.

Araluce Igorren dago eta 130 behargin ditu. Auto industriarako estanzazino tresneria fabriketan dau. 65 urte emon ditu horretan

eta egiten eban naruzko piezak esker, izen handia eukan automobilgintzako merkaduan.

Batzek jakitera emon dauanaren arabera, Araluce erosita, bere etorkizunerako planaren ardatzak indartuko ditu. Izan be, Batz Kooperatibearen helburua ez da bakarrik haztea, bere kapazidadea handitzea be bada bere helburua eta holan, besteak beste, naruzko piezak egiteko ahalmena handituko dau.

## ZEBERIO


**Larrak baliabide publiko****Erredakzioa**

Gorbeialdek jakitera emon dauanaren arabera, Zeberioko Udalak, bere titulartasuneko basoen larrak kudeatzeko ordenentzea onartu dau. Honen helburua, larrak ordenetea da, baliabide bihurtuz, eskualdeko ganaderuai eskeintzeko.

Zeberioko ordenantzeak Gorbeialdek koordinetan dauan lur kudeaketearen lan taldean hitzartutako oinariak jarraituten ditu: Lehen sektorearen barrikuntza indartzea; kontuan eukitea baso publikoetako larrak errecurso publiko moduan eskeintzea interesauta dagozanai; abeltzain jardueria larra erabilteko eskubidea izatea, eta osoko antolamendua baso publikoaren erabilere-agaz zerikusirik daukien puntu guztiak jasotea. Oinari honeek araudian sartzea Areatzak, Dimak, Orozkok, Otxandio eta Zeanurik be ebatzi ebezan 2014an. Oinari horreekaz araudia egin dauan lehenengo herria Zeberio izan da.

Araudian, mugakideen alkarbizitza bideratzeko erispideak be sartu dauz Araudia egiteko lan prozeduran, Zeberioko Udalak, BFAko Baso Zerbitzua eta Zeberioko abeltzainak hartu dabe parte AGAMUZE alkar-tearen bitartez.

## ARRATIA

**Harreraren zozketako saria****Erredakzioa**

Harrera alkar-teak antolatutako alkartasun zozketan, 954 zenbakia suertatu zan saritua eta 493 zenbakia ordezkoa. Zozketea urri lehenengoaren 10ean izan zan Lemoako bertso bazkarian eta saridunak mariskadea egiteko otzara "mundiala", txakolin botila bi eta lagun birentzako bazkari edo afaria Axpe Goikoan izan dauz sarizat.

Harrera preso eta iheslari izandakoai babesa emoteko alkar-tea da.

## ARRATIA

**Caritas Arratiak astelehenez egingo dau harrerea****Erredakzioa**

Caritas Arratia, Zeanuri, Areatza, Artea, Arantzazu, Dima, Igorre, Lemoa eta Bedia herriak osotuten dabe. Momentu honetan, Caritasek hiru programa ditu eskuartean: harrera zerbitzua, sensibilizazioa eta bidezko merkataritza. Harrera zerbitzua, Igorreko parrokiako lokaletan egiten da, astelehenetan, 10:00etatik 11:00etara. Sensibilizazioari jagokionean, urtean lau kanpaina egiten ditu Caritasek. Azkenik, bidezko merkataritzako produktuak herrietako azoketan eta Igorreko Iturbe okindegian dagoz salgai.

## ARRATIA

**Hauteskunde sasoia****Erredakzioa**

Aspaldi honetan, askotan joan behar izan dogu botoa emoten. Betiko deialdiez gainera, Espainiako egoera politikoak errepetidu arazo eban eta baleiteke Espainiako Legebiltzerra eta Senadua osotuteko hirugarrenez botoa emon behar izatea. Tartean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izango dira. Eta hauxe da gure irakurleai egin gura deutsegun itauna:

Uste dozu urri lehenengoaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen

emoitzak eragina izango dabela Espainiako gobernua sortuteko negoziatzino edo hauteskundeetan?

Gai honen inguruan zure eretxia jakin gura dogu. Eta horretarako [www.begitu.org](http://www.begitu.org) webgunean sartu eta inkesta sailean emon daikezu erantzuna.


Hiru erantzun posible dagoz: a) Bai. Euskadin eta Galizan urtendakoak eragina izango dau. Boto-emoile asko dira eta partidu nagusiak kontuan izango dabez emoitzok negoziatzino orduan.

b) Ez. Erispide desbardinak erabilten dira autonomia maila edo estadu mailako hauteskundeetan. Ez daukie zerikusirik eta bakotzak bere logika propioa dauka.

c) Ez dakit.

**Irakurle konprometidua**

Aurrekoan gure irakurleai itaundu geuntsen ea politikea modu aktiboan egiten daben eta partidu, sindikatu, alkar-te edo GK Eren baten antolatuta dagozan. Erantzun gitxi jaso doguz baina erantzun daben guztiak modu antolatu baten jarduten dabela erantzun dabe.



**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odomungoa  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igorre-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zerbaitz 101  
R.P.S. 31/06

**begitu**  
arautia urriko lehenengo

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsinoak  
Lentilen adaptazinoak  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
T. 94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridika · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askitasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

ARRATIA

# BEGITUREN eremuan, EAJ-PNVk atera ditu boto gehien eta EH Bildu da bigarren indarra

	Errolda	Abstentzinoa 2016	Abstentzinoa 2012	EAJ-PNV	EAJ-PNV 2012	EH Bildu	EH Bildu 2012	Elkarrekin Ahal Dugu	Elkarrekin Ahal Dugu 2012	PSE-EE	PSE-EE 2012	PP	PP 2012
Arantzazu	295	% 19,32	% 13,59	102	117	115	117	19	1	1	2	1	3
Areatza	890	% 25,17	% 20,95	294	315	268	275	38	8	14	34	32	46
Artea	608	% 20,89	% 15,4	234	242	186	215	32	3	5	13	13	19
Bedia	840	% 31,9	% 25,58	323	336	120	164	57	5	22	42	27	23
Dima	1.144	% 23,86	% 17,53	327	350	463	511	56	10	5	6	6	10
Igorre	3.148	% 30,53	% 26,48	1.053	1.097	790	1.035	173	29	66	112	43	48
Lemoa	2.662	% 31,22	% 25,23	772	799	630	804	215	34	82	139	53	65
Ubide	137	% 25,55	% 18,88	27	29	57	73	14	3	0	4	2	5
Zeanuri	995	% 18,99	% 16,01	421	407	309	379	44	3	5	11	8	23
Zeberio	879	% 26,62	% 24,26	323	354	243	273	57	2	4	16	5	4
<b>Guztira</b>	<b>11.616</b>	<b>% 25,4</b>	<b>% 20,39</b>	<b>3.876</b>	<b>4.046</b>	<b>3.181</b>	<b>3.846</b>	<b>705</b>	<b>98</b>	<b>204</b>	<b>379</b>	<b>190</b>	<b>246</b>

**Erredakzioa**

Urri lehenengoaren 25eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan, BEGITUREN eremua osotuten daben 10 herrietan, guztira, EAJ-PNVk lortu dauz boto gehien, 3.876. EH Bilduk, barriz, 3.181 boto izan ditu.

Lehenengo bi eta hurrengo hiru partiduren artean alde handia dago; izan be, hirugarrenak Elkarrekin Ahal Duguk 705 boto jaso ditu, PSE-EEK 204 boto eta PPK 190 boto.

EAJ-PNVk, EH Bilduk, PSE-EEK eta PPK 2012an baino boto gutxiago izan ditue. Elkarrekin Ahal Duguk barriz, gehiago. 2012an,

gure eremuan 98 boto besterik ez eban lortu eta ez eban lortu eserlekurik Legebiltzarrean. Urri lehenengoaren 25eko hauteskundeetan, abstentzinoa % 25,7koa izan da, 2012an baino 5 puntu gehiagokoa.

Areatzan, Artean, Bedian, Igorren, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion EAJ-PNV izan da indar

nagusia; Arantzazun, Diman eta Ubiden, barriz, EH Bildu.

Legegintzaldi honetan be, EAJ-PNVko Josune Gorospe Elezkano dimoztarra egongo da legebiltzarkide.

Koadroan, Legebiltzarrean eserlekua lortu daben partiduak emondako botoak jaso dira.

**LEMOA**

## Botikak, errifle bat, gudarien erropak eta dokumentuak topau ditue Lemoatxeko lubakietan

**Erredakzioa**

Uda aprobetxetan dabe Arratiako gazteak zein kanpokoak Lemoako memoria historikoan sakontzeko. Aurten be, herrialde askotatik etorritako gazteak berreskuratu dabe Lemoatxeko lubakietako beste zati bat. Arratiakoak, barriz, Berlin eta Frankfurtera joan dira eta Guda Hotzaren inguruko ibilbidea egin dabe, besteak beste.

Mikel Garcia Lemoako Gazte

Teknikariak jardueren ondorioen barri emon deutso BEGITURI.

**Aurten be Auzolandegietan 20 laguneko talde bi egon dira, ezta? Nondik etorritako gazteak osotu dabez taldeok?**

Aurten leku askotatik etorri dira. Turkia, Txina, Espainia, Euskal Herria, Alemania, Frantzia, Italia, Korea, Belgika, Txekia, Mexiko eta Holandatik etorritako gazteak egin dabe behar Lemoatxen, Aranzadiko tek-

nikari biren gidaritzapean. Teknikariak, Tito Agirre tolosarra eta Julian Blanco frantziarra izan dira.

**Zein izan da egin daben lana?**

Lubakien beste zati bat berreskuratu dabe, oraingo honetan metro gutxiago izan dira, 90 metro inguru, baina material asko topau da.

**Zer topau dozue?**

Inoz baino material gehiago topau dogu, eta orain arte aurkitu ez diran materialak agertu dira. Normalean aurkitzen diran bala eta metralla zatiez gainera, aurten komuniketako telefonoaren kablea, medikamentuak kristalezko anpulueta, errifle bat, gudari baten txapela, gudari baten jakea eta dokumentu batzuk be agertu dira.

Auzolandegietan egindako lanagaz oso pozik gagoz, lan izugarria eta neketsua izan da baina emotza oso onak lortu izan dira.

**Kanpoko gazteak Lemoara**

**etorri eta Lemoakoak kanpora joan dira, Berlin eta Frakfurtera hain zuzen be, memoria historikoa landuteko. Zenbat gazte hartu dabe parte biaz horretan?**

Guztira 23 gazte joan dira. Horretaz gain, begirale bi eta dokumentala egiten beste persona bi izan dira.

**Zer egin dabe Berlinen eta Frakfurten?**

Berlinek pisu handia dauka Historian eta joko asko emon deusku. Sachsenhausen-eko konzentrazio eremura joan ginan eta han, Giza Eskubideak eta memoria landu genduzan. Bisita oso gogorra baina oso aberasgarria izan zan.

Beste egun baten, Guda Hotzaren inguruko ibilaldi bat egin genduan bertako alkarte bateko kide bategaz Berlin ingurutik. Harresiaren inguruan berba egin eta sasoi haretako kontu asko ikasi eta ikusi ahal izan genduzan. Horretaz gain, Berlin bera be ezetu genduan, bizikletea eta garraio publikoa tartekatuz.

Frankfurtuko alde zaharra guztiz barriztuta dago eta sasoi haretako gauza gutxi geratzen dira. Memoria alkarteetako kideak batu ginan. Egundun baten lehengo kartzela bat ikusi genduan, egun beste era bateko funtzionamentua daukana. Bertan gai sozialak landuten dabezan alkarteak egiten dabe lan. Batzuek migratzaileak egiten dabe lan, beste batzuek errefujiaduakaz, memoria historikoa landuten dabenak be badagoz, eta abar.

Beste egun baten, herriko hainbat gune historiko bisitatu genduzan,


danak memoria historiko eta Giza Eskubideakaz zerikusia daukienak.

**Alemaniko zein alkarteetako gazteak egon dira Lemoakoak?**

Dana egiteko alkarte nagusia Basile alkarteak izan da. Eurak alemaniarak dira baina Bilbon bizi dira gaur egun kideetako bi. Guztira hiru alkarte izan dira. Memoria historikoa eta Giza Eskubideakaz lotura zuzena daukien bi, eta hirugarrena, erakunde sozial bat izan da, momentu honetan errefujiaduakaz lan egiten dauana.

**Azkenik, Hauxe da gure kantua diskoak zelango harrera izan dau?**

Harrera oso ona baina asko daukaguz saltzeako. Diru apurtxo bat egin dogu eta horregaz hainbat ekintza ordaindu doguz. Herrian arrakasta handia izan dau, bai bideoklipak eta baita CD-ak berak be. Azkenean, herrirako zeozer barria izan da eta gazteak gai hau lantzeako era desbardina.



**Mikel Garcia.**

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n. 48530 LEMOIA, Biskaiak  
Tel: 090 482 8300 / 090 200 717

**ZEKUTZE**  
JATEETXEA  
Sabino Arana, 24  
48140 IKORRE - Bizkaiak  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutsajateetxe@hotmail.com

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**www.begitu.org**

**Gugaz harremanetan ipinteko**  
**94 631 73 14 eta 649 979 112**  
**begitu@topagunea.com**



**ARGAZKI LEHIAKETE**

# Larogeta bost argazki oporrek kontetako

Kalidade handiko eta istorio ugari kontetan dabean erretratuak jaso doguz aurten. Lehenengo saria Aitor Arnaizek Katalunian aterako argazki batentzat izan da, teknikoki sano ondo eginda egoteaz gainera, adoleszentziaren erretratu esanguratsua dalako. Bigarren saria, Iñaki Lejarretak Itxinan ateratako argazki ederrarentzat izan da. Arantza Iruretagoienak Arratian ateratako "Ura" izeneko argazkia eta Olatz Landajok Zarautzen ateratakoa be ez dogu gura izan aitamen barik itxi. Hona dakarguz argazki batzuk. Danak ikusi gura izan ezker, [www.begitu.org](http://www.begitu.org) webgunera jo.



Iñaki Lejarretaren argazkia. Bigarren saria.



"Ura", Arantza Iruretagoienaren argazkia. Hirugarren saria.



"Lake Louise" Lourdes Intxaurrearen argazkia. Kanadan aterata.



Imanol Elexpururen argazkia Areatzako jaietan.



Garazi Loiartek Artikutzan ateratako argazkia.



Garbiñe Uriartek Alpeetan ateratako argazkia.





Olatz Landajok Zarautzen ateratako argazkia, hirugarren saria.



Maitane Olatz Bilbaok Delta Salom-en (Senegal) ateratako argazkia.



Bardeak, Aitor Arnaizen argazkia.



Iñaki Lejarretak Baltzolan ateratako argazkia abuztuaren 2 an.




Edorta Alonsok iparraldean ateratako argazkia.



Miren Begoña Idigorasek San Frantziskon (Kalifornia) ateratakoa.



Idoia Zuloagaren argazkia, Lekeition aterata.



"Itsasoari begira" Luis Bilbaok O Groven ateratako argazkia.



## BIZIKLETEA

**Bittor Martinez  
Arteakoa, Master 40ko  
Bizkaiko Txapeldun****Erredakzioa**

Dimako Fisik-Banco Mediolanum taldeko Bittor Martinezek Master 40ko Bizkaiko txapela lortu eban Galdakaon urri lehenengoaren 17an. Helmugan, hirugarren sartu zan Martinez, Master 30eko txapela lortu eban David Busto eta Elite mailako Ion Zeberioen atzetik.

Egun euritsua zan eta karrera ez zan apurtu Sarasolako gailurrerarte. Han zortzi txirindulari indartsuenak aurretik joan ziran, tartean Bittor Martinez eta Espainiako M40ko txapelduna Raul Portillo. Arratiarrak Ugaon eraso egin eban eta beragaz batera Elite mailako Ion Zeberio baztandarrak. Galdakorantza heltzean Dabid Bustok harrapatu ebazan eta karrera eta Master 30eko Bizkaiko Txapelketea irabazi ebazan. Ion Zeberio bigarren egin eban eta Bittor Martinezek hirugarren, Master 40ko Bizkaiko txapela lortuz.

**Fisik-Banco Mediolanum taldea**

Dimako lehengo Tiritu Master Taldeak Fisik-Banco Mediolanum izena hartu eban urte hasieran. Taldearen babesle nagusiak dira Fisik eta Mediolanum bankua. Taldea errepidean, mendi bizikletan, ziklo-krosean eta duatloietan lehiatzen da.

Fisik-Banco Mediolanum-en, Bizkaiko txapelduna dan Bittor Martinezegaz, Alberto Hierro,

**Bittor Martinez.**

Mikel Nuñez, Jalmir Bober, Aingeru Artetxe, Xabier Gonzalez, Josu Amuriza, Xabier Atutxa, Iker Lekue, Jon Redondo, Asier Egia, Iker Unzueta, Iñigo Yurrebaso, Joseba Moreno, Jose Luis Dosantos eta Ibon Lekerika dagoz.

## RAIDA

**Gorbeiaiko Parkean  
sartuko da V. Arratia Raid****Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 22an jokatu da V. Arratia Raida. Aurten lehenengo aldiz, Gorbeiaiko Parke Naturalean sartuko da eta Pagomakurren hasiko da 10:00etan. Gorbeian, jentea normalean ibiltzen ez dan lekuetatik ibilteko aukerea izango dabe partaideak.

Zazpi probak osotuten dabe Iparaldeko ligan sartuta dagoan Arratiako Raida eta partaideak, bikoteka, mapak eta brujulea hartuta, 7 ordu izango ditue probak egiteko.


Honek dira egin beharreko probak: trekking, espeleologia eta orientazio proba berezia; BTT

eta kaleko orientazioa Areatzan. Izena Arratia Raid blogean emon daiteke.

**Orientazio martxea**

Hurrengo egunerako Lamino Mendi Klubak Gorbeiaiko Parke Naturalean orientazio marxa bat antolatu dau Bizkaiko Mendizale Federazioak eskatuta. Orientazio martxea bidea markau bako mendi ibilbidea da. Mapea eta brujulea erabili behar dira antolakuntzakoak aurretik ipinitako balizak topetako. Proba hau be Pagomakurretik hasiko da goizeko hamarretan.

Ibilbide bi egongo dira. Bata lu-



zea lauzpabost ordukoa, eta beste laburra, bi edo hiru ordutan egitekoa. Ondoren partaide guztientzako parrilladea egongo da.

Izena Euskal Mendizaleen Federazioaren webgunean emon daiteke.

## MENDI MARTXEA

**Motxogonek XXIX. Mugari Bira antolatu  
dau Igorren urri bigarrenaren 16rako****Erredakzioa**

Askorentzat mendira joateko urte sasoirik aproposenean, antolatu dau Motxogan Kultur Elkarteak XXIX. Mugari Bira mendi martxea, Tomas Arandiaren oroimenez.

Martxea hilaren 16an izango da eta ibilbide bi izango ditu. Luzeak 28 km. inguru ditu eta laburrak 12 km. Ibilbide luzea egin gura dabenak 08:30ean urtengo dira Igorreko kiroldegitik. Laburra egin gura dabenak, barriz, 09:00etan. Izen emotea egunean bertan egin



ahal izango da, urten baino ordu erdi lehenago Kiroldegian. Prezioa 5 eurokoa da nagusientzat.

Martxearen helburua Igorreko mugak ezetuten emotea da eta Udalaren laguntzaz antolatuten da.





## LASTO ALTXATZEA

# Marka barria ezarri dau Jose Martin Bustinza "Tubi" k Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketan

### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 24an, Aizarnazabalen (Gipuzkoa) Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketa jokatu zan. Jose Martin Bustinza, Tubi, dimoztarrak bere marka hobetu eban minutu bitan 25 jasoldi egin eta gero, hogeta seigarrena, segundu batera eginda. Alde handia atera eutsan Jose Lauzirika bigarrenari, honek 19 jasoldi egin ebazan eta.

Egin beharreko lana 45 kiloko lastoa ahalik eta gehienetan altxatzea, minutu biko denporan da, baina beste jasoldi bat egiteko zenbat denpora behar dan be neurtzen da. Aurreko marka Tubik berak ezarri eban Beinke jaialdian. Orduan 25 jasoldi egin ebazan eta hogetaseigarrena,



Tubi, Jon Loiolagaz batera.

handik 9 segundutara egin eban. Euskal Herriko Txapelketan, 26. hau, segundu batera egin dau. "Sano gatxa da 25 jasoldi egitea,

dana emoten dot. Apurtuta amaitzen dot baina orain 26. jasoldia hur daukat. Zenbat eta zaharrago, hobeto" dino txapeldunak.

## MENDI LASTERKETEAK

# Luis Alberto Hernandok eta Andrea Gilek irabazi dabe Gorbeia Suzien Ternua

### Erredakzioa

Irabazleak Skyrunner National Championship be irabazi dabe. Sano lasterketa teknikoan izan zan, goizeko behelainoak eta aurreko egunetako eurik espezialistentzako aproposa egin eben ibilbidea.

Gizonezkoetan, Luis Alberto Hernando, Burgoskoa, izan zan azkarrena. Lasterketearan 32 km.ak 3 ordutan egin ebazan (3:00:20). Bigarrena Hassan Aitchaou (3:02:03) izan zan eta hirugarrena Euskal Selekzinoko Aritz Egea (3:07:05). Ander Gerritakabarria Junior mailakoa,

lehenengo hamarren artean sartu zan (3:12:26).

Andrazkoetan, Extremadurako Andrea Gilek irabazi eban

3:48:52eko kronoa eginda. Maria Zorrozak (3:58:03) eta Euskal Selekzinoko Aitziber Ibarbiak (4:02:51) osotu eben podiuma.



Luis Alberto Hernando.



Andrea Gil.

## BTT

# Hiru ibilbide aukeran Dimako BTT martxea egiteko

### Erredakzioa

Dimako Tiritu alkarteak bigarren BTT martxea antolatu dau urri bigarrenaren 9rako. Aurten, igaz ez bezala, ibilbide bi egongo dira. Luzeak 42 km. izango ditu eta laburrak 21 km. Martxea lar gogorra iruditu ezker, 11. kilometroan amaituzat emoteko aukerea be badago, herri-tik pasetan dan hornidura puntuan.

Ibilbidea aldatu dan arren, igazko moduan lasterketako punturik altuena Altungane mendia izango da. Urtekerea Dimako plazatik izango da goizeko 09:30ean eta parte hartzeako izena emon behar da bertan, 08:30etik 09:15era, 12 euroko prezioan. Ibilbide luzeak hornidura puntu bi izango ditu; laburrak, barriz, bakarra.

Lasterketea amaitutakoan, sari ba-

naketea eta barauskarria egongo dira.

### Ibilbidea

Txirrindulariak plazatik urten eta Dimaganera joango dira. Handik Biterino eta Bikarregi aldera jo eta bueltan, Dimaganetik plazara ostera be. Plazan lehenengo hornidura puntua eta martxea amaituzat emoteko aukerea egongo da.

Segiduten dabenak Artabetik Bargondiarra joko dabe eta handik Indusira. Ibilbide laburra egitea aukeratu dabenak handik Dimara bajatuko dira. Luzea egingo dabenak, barriz, Zumeltzara joko dabe eta han bigarren hornidura puntua izango dabe. Handik Altunganera eta Urrekoatxaren ondotik Lamindaora. Gero, Olazabaletik plazara bajatuko dira ibilbidea amaituteko.

## MENDI MARTXEA

# Arantzazuko mugak ezetuteko mendi martxea

### Erredakzioa

Uri bigarrenaren 15ean, sanfaustotako jai egitarauaren barruan, Arginatx Mendi Taldeak Arantzazuko Mugari Bira mendi martxea antolatu dau.

Martxa honek Arantzazu inguruko mendiak ezetuten emoteko helburua dauka eta edonok egiteko modukoa da. Izan be, ibilbideak 9 km. ditu eta Bildosolatik urtenda, erdia egiteko aukerea (4,5 km.) be egongo da.

Partaideak urteroko ibilbide bera egingo dabe. Arantzazuko plazatik urtengo dira goizeko 09:30ean eta Trokara abiatuko dira. Handik Urikenetara, Argiñano eta Bildosolara. Ondoren, Elezkanon, Arandui eta Arantzazugoititik pasauko dira partaideak, ibilbidea herriko plazan amaituteko.



## KULTUR GUNEA

# Kultur proiektuko lehenengo lan saioa urri bigarrenaren 5ean

**Erredakzioa**

Lemoako aisialdi eta kultura zerbitzuak berrantolatutako, Udalak, Kultur izeneko proiektua abiatu eban bagilean. Maraka taldearen laguntzaz, herritarrek aisialdi eta kultur zerbitzuak berrantolatu eta Abadetxeari, kultur guneko barriari, ze erabilera emon behar jakon eta horretarako ze espazio mota behar izango dituan aztertuko dabe.

Prozesua bagilean abiatu arren, aisi eta kultura espazioak berrantolatutako preminea aspaldikoa da. "Orain dala lau urte hasi ginan baloretan ze espazio daukaguzan. Eta ikusi genduan, daukaguzan alkarte kantidadeagaitik eta egiten diran ekintza kantidadeagaitik, espazio faltea daukagula. Orduan espazio barri baten bila hasi ginan eta garagarilean Bizkaiko Gotzaindegiaz Abadetxearen zesinoa sinatu genduan. Hori izango da Kultur Etxea" azaldu deutso BEGITU Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

Aisialdi eta kultur zerbitzuen espazioak berrantolatutako Udalak Maraka taldea kontratatu eban prozesuaren teknikari eta dinamizatzaile moduan. Bagiletik urri lehenengora arte udal barruko beharra egin dabe "aisi eta kultur teknikari guztiakaz: ludoteka, liburutegi, Gazte Leku, kultura, gazte teknikari eta kiroldegiko teknikari guztiakaz". Orain herriko jentearen txandea da. Urri lehenengoaren 22an batzar irekia egin eban eta urri bigarrenaren 5ean, ikerketea definitutako, lehenengo lan saioa egingo dabe. Bigarren fasean, Sortu izenekoan, herritarrek zerbitzuak diseinatu dabez saio bitan; lehenengo zemendiaren 9an izango da eta hurrengo 16an. Atzenik, Definitu izeneko fasean, egindako lana aurkeztuko dabe. Hau aben-

duaren 19an izango da.

**Informazioa eskuratzeko erak**

Prozesuaren gaineko informazioa emoteko hiru eskuorri aterako daz Udalak. Lehenengo kalean da daborduko, eta bertan, aisialdi erabilten diran 25 espazio dagoz mapan markata, espaziook nok eta zenbat erabilten dauan informazioagaz. Kultur prozesuaren informazioa be emoten da eta inkesta bat dago eretxiak jasoteko.

Ez da informazioa jaso eta Udalar eretxia heldu arazoteko modu bakarra. Izan be, Udaleko webgunean, Kultur izeneko gunean, prozesuan sortzean dan informazio guztia ipiniko dabe: txosten, plano, marrazki... eta galdegia be erantzun ahal izango da bertatik. Udaleko telefono aplikazioan be Kultur izeneko laukitxoan, erantzun ahal izango da inkestea.

Lemoako alkatea sano ilusionauta agertu da proiektuagaz. "Uste dogu behar dogula. Daukagun helburua da herriak behar dauala zeozer, baina argi dago horra helduteko ibilbide bat egin behar dala. Guk ez dogu gura espazioak euki ez erabilteko, baizik eta horreek espaziook bizia eukiteko. Egunero jentea urten eta sartu daiten. Behar dauan erabili dagiazan. Ilusionauta eta gogotsu gagoz prozesuagaz" dino.

**Eskolako aterpea**

Kultur eta kirol jardueretarako beste gune estali bat izango dau laster Lemoak. Izan be eskolako aterpearen lanak, BEGITU kalean izan orduko amaituta egongo dirala uste dau alkateak. "Uste dot horrek joko handia emongo deusala herriari lehenengo gune estalia kalean egongo dana izango dalako" dino Elejabarrietak.

## ONDAREA

# Migrazioak gure herrietan izan daben eragina aztertuko dabe Ondarearen Europako Jardunaldietan

"Etxetik kanpo: migrazioak eta kultur ondarea" da jardunaldietako aurtengo ardatza.

**Erredakzioa**

Europako Kontseiluaren ekimenagaz bat eginez, Foru Aldundiak hamasei urte daroaz programea koordinetan. Aurten 63 udalek, 17 alkarte eta erakunde ofizialek, 17 museok eta 50 kultur alkarte inguruk hartuko dabe parte. Tartean, Areatza, Igorre, Zeanuri eta Ubideko Udalak, Joko Alai, Amexier Mendi Elkarte eta Ortuzar Ubideko Gazte Asanbladea.

Zazpi dira gure eskualdean antolatuko diran jarduerak. Areatzan bi. Lehenengo, urri bigarrenaren 8an eta 9an, bisitaldi gidatuak eta erakusketa dinamikoak antolatu ditue "Migrazio eta salgaien mobimentuak sortu eta sustatutako urribildua" izenpean. Urri bigarrenaren 15ean, barriz, Euskal Jaia. Igorren, hilaren 26an, Angel Larreak migrazioak Igorreko kultura ondarean izan daben eragina azalduko dau Kultur Etxean emongo dauan berbaldian. Eta Zeanurin lau jardura antolatu ditue. Lehenengo, hilaren 15ean izango da, San Justoko karobitik ibilbide gidatua; hurrengo 19an, Barazako zentral hidroelektrikoari bisitea; 22an, Zeanuriko gune monumentalera bisitea Ekuadorreko Los Rios eleizbarrutiko misinoren barri jasoaz, eta urri bigarreneko 29an, Ubideko Udala eta alkarteak alkarlanean, Zeanuritik Ubidera, Erdi Aroko galtzadatik Larreen zeharkaldia antolatu dabe.

Beraz, lehenengo hamabostaldi honetan, ondarea ezetutako hiru

zita dagoz. Hurrengo hamabostaldian, beste lauak.

**Areatza**

Bisitaldiaren eskutik, Areatza ulertutako gertaera nagusien barri jakingo dabez partaideak. Areatza Juan Nuñezek eta Maria Diaz de Harok eratu eban XIV. gizaldian, Arratia errekearen ibilgutik kostaldera joiazan salgaiak kontroletako; urrunetik eta ingurutik etorten ziran artisauek; XVI. Mendeko zabalgunek, XIX. mendeko Errege Bide barria edo Arratiako tranbiaren gaineko informazioa emongo dabe bisitaldi gidatuak eta erakustaldi dinamikoak.

Jarduerak zapatu eta domekan izango da, euskeraz eta gaztelaniaz, ordutegi desbardinetan: 11:30ean eta 16:00etan euskeraz, eta 13:00etan eta 17:30ean gaztelaniaz.

Hilaren 15ean, 11:00etatik aurrera Euskal Jaia ospatuko da. Antxinatik etorri da jentea Areatzara. Bilboko eta Aiara aldeko burgesiako aldialdia emoten eban Areatzan, eta Undurraga urtegia eregiteko etorritako beharginen familien harriera lekua izan zan. Urribilduaren sei gizaldiko historian, etorri diran persona guztiak lagundu dabe bertako ondare etnografikoa osotuten. Euskal Jaiak hori guztia berreskuratzen eta zabaldu gura dau, besteak beste, azoka, artisaunen tailer, jantzi eta abestien bidez.

**Zeanuri**

San Justoko karobia bisitetako hitzordua hilaren 15ean, 10:00etan da herriko plazan. Karobian antxina etxetik kanpo egiten ziran lanetako bat azalduko da: karea egitea. Karea erabilera ugari eban: eraikuntzan, baserriak zuritzeko; nekazaritzan ongari moduan eta abeltzaintzan kortak desinfektetako.

Gidari lanak egiteaz eta azalpenak emoteaz Jon Urutxurtu historialaria arduratuko da.

## LIBURUA

# Gure Aita liburuaren aurkezpena Bedian

**Jon Urutxurtu**

Urri bigarrenaren 5ean, eguaztenez, arrastiko 19:30ean, *Gure Aita* liburuaren aurkeztuko da Bediako Udal Liburutegian. Idazlan hau Arratiako Eleizak kaleratzen dauan Arratia sortako hamargarren alea izango da.

Martin Valmaseda Hondurasen dagoan misinolari marianistearen testua eta testuaren itzulpena biltzean ditu liburuak. Testua euskeratzeko lantalde zabalak hartu dau parte: Aitor Etxebarriak, Jesus Mari Agirrek, Jone Ozerinjuregik eta Jose Mari Kortazarrek, danak Aitor Erdoiza itzultzaile profesional eta filologoaren zuzendaritzapean. Ezin da itxi aitatu barik Kepa Intxausti bertsolaria; berak jarri ditu euskeraz, kapitulu bakotxa laburbiltzen dabezan bertsoak-eta.

Horrez gain, jatorrizko testua aberastu egiten da hainbat autorek sortutako "Gure Aita" desbardinak gehituz: Bitoriano Gandiagak, Xabier Letek, Patxi Ezkiagak, Asiseko San Frantziskok, Patxi Loidik...

Bediako Udal Liburutegian egingo dan aurkezpen ekitaldian une musikalak be izango dira, "Gure Aita" desbardinak kantatuz eta erreztatuz.

Liburuaren Arratiako parroketan erosi ahal izango da, 5 eurotan.

## LEHIAKETE

# 2017ko egutegia egiteko Argazki Lehiaketea

**Erredakzioa**

Lemoako Udaleko 2017ko egutegia egiteko helburuagaz, Lemoako V. Argazki Lehiaketea abiatu dau udalak. Hamabi argazki sarituko dira egutegia osotutako. Argazkiak urri bigarrenaren 30era arte bialdu daitezke udaleko kultura zerbitzura.

Gaia Lemoa da eta edonork hartu daiteke parte. Argazkiak formatu horizontalean baino ez dira onartuko eta partaide bakotzak argazki bakarra aurkeztu ahal izango dau. Zuri-baltzean, koloreetan edo mugikorragaz egindako argazkiak aurkeztu daitezke. Gitxienezko tamaina 30 cm. x 20 cm.koa da. Egilearen datuak batera, eta argazkia noz eta non aterata dagoan esanda, kultura@lemoa.net helbidera bialdu behar da erretratua. Argazki sarituak egutegian argitaratuko dira eta 30 euroko saria be izango dabe.

**Areatzako Euskal Jaia.**



## ZINE KLUBA

# Hile bakoetako lehenengo egunean pelikula bat eskeiniko dau Igorreko Zineklubak



**Thelma & Louise** fiilma emongo dabe hilaren 13an.

## Planteamentu barria dakar Igorreko Zineklubak

2016-2017 ikasturterako.

### Erredakzioa

Orain arte, hiruhilabeterik behin ziklo bat eskeini izan da; hau da, hilabete baten hiru pelikula, baina hemendik aurrera hilero eskeiniko

dira pelikulak: salbuespenak salbu, hileko lehenengo egunean, arrastiko zortziretan, proiektino bat egongo da. Betiko moduan, pelikulak bersino originalean eskeiniko dira.

Ez da barrikuntza bakarra izango. Proiektino batzuk batera, pelikula edo dokumentalen inguruko berbalditxoak egongo da, edo protagonistak eurak bertaratuko dira. Holan, adibidez, abenduaren 1ean Iñigo Iraultzen *Arraun the World* dokumentala eskeiniko da eta bertan izango da Iñigo Iraultza bera. Gainera, gaiari lotuta dagoenez, zine kluba Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak kolektiboagaz alkarlanean dabil.

Lehenengo hiru pelikulak, honeek izango dira: urri bigarrenaren 13an, *Thelma & Louise* (Ridley Scott, 1991); zementziaren 3an, *Timbuktu* (Abderrahmane Sissako, 2014) eta abenduaren 1ean, *Arraun the World* (Iñigo Iraultza, 2015).

### Thelma eta Louise

Aurten 25 urte beteko dira pelikula hau estrenau zala eta gitxi izango dira *Thelma & Louise* pelikulea ikusi ez dabenak. Izan be, arrakasta handia izan eban gertaera gogoangaria bilakatuz. Pelikuleak, biaje baten izandako andra biren jabeakuntza prozesua kontetan dau.

Hauxe da pelikulearen argudioa: Thelma Dickinson bizimodu aspergaria daroan andra bat da. Bere gizon nazkagari eta matxisteagaz bizi da eta honek neskametzat hartzean dau. Louise Sawyer barriz, kafetegi baten zerbitzaria da. Jimmy muti-Hagunagaz ezkontzea amesten dau. Thelma eta Louise asteburu pasa joango dira, baina biaje hainbat gauza gertatuko dira, eta asteburu euren bizitzetako inflexino puntu bilakatuko da.

## ANTZERKIA

# Elikagaien jatorria erakusten dauan umeentzako antzerkia

### Erredakzioa

Eidabe konpainiak, 3 eta 6 urte bitarteko umeentzat *Baserrian Amets* antzezlan antzetzuko dau Igorreko Lasarte Aretoan hilaren 15ean, arrastiko bostetan.

Galder Perezen zuzendaritzapean, Aiora Sedano aktoreak, Amets neska gaztearen papela jokatuko dau. Ametsek patatak eta arrautzak dendatik datozala uste dau, baina astegoiena baserrian amamagaz pasau eta gero, elikagaiak nondik datozan ikasiko dau. Ametsek sasoiari sasoioa eta bertakoa jan egin behar dala be ikasiko dau.

Elikagaien jatorria erakusten dauan ume eta amamaren istorio honetan, musikea eta antzerki jolasa nahastuko dira. Musikea, programazioa eta trikitixa Asier Ercillaren eskutik datoz. Gitarrea Imanol Goikoetxeak joko dau. Enara eta Amets Ercillak egingo deutez koruak Eider Zenarruzabeitia eta Aiora Sodanori.

Sarrerak 5 euro balio dabe baina ume bazkideak, Aretoko umeen lagun txartelagaz debalde sartuko dira.

## LEHIAKETEAK

# Zeanuriko Emilia Aranak irabazi dau XXVII. Bizkaiko Artzai Gaztai Txapelketea

### Erredakzioa

Artzain Gaztai Txapelketea Atxondon jokatu zan, urri lehenengoaren 24an Artzai Egunaren egitarauaren barruan. Zeanuriko Emilia Aranaren gaztaia, Bizkaiko Idiazabal gaztairik onenatzat jo eban epaimahaiak, txapelketea irabaziz. Bigarren, Markiñako Santamañe alkarteko gaztaiak egin eban eta Abadinoko Aitor Urienenenak hirugarren. Txapelketan, euren artaldetako ardi latxa esne gordinaz egindako gaztai ekoizleak hartzean dabe parte.

### Udabarriko gaztaia

Irabazlea apirlean egindako gaztaia da, udabarriko gaztaia. "Urte guztiko gaztaia izaten da ona, baina udabarriko, bedarragaitik edo, sano gozoa" dino Emilia Aranak. Aurtengo produktzioa ona izan dala eta gaztai oso ederra urten dala dino.

Sariak, egindako behar gogorri errekonozimendua emoten deuto, eta pozik hartu dau Zeanurikoak. "Oso pozgarria da. Hainbat urtetan gabiliz beharrean eta ondo egiten dogula errekonoziduten dau sariak".

## DUNBA

# Negozio idearik bai? Lan eskeintzarik? Lana topau gura?

### Zulaibar Lanbide Ikastegia

Hasi da 2016-2017 ikasturtea. Ziklo barri bi martxan, Menpekotasun egoeran dagozan personai arreta egiteko eta Fabrikazio Mekanikoan Diseinua. Zulaibarreko ikasle, irakasle eta beharginak, proiektu desbardinatan murgilduta dagoz: Formakuntza Dual-a bi edo hiru urtera; ETHAZI, ETEkin HAndiko Zikloa; Trokelgintzan Barrikuntza, Batz eta Tooling & Sevice enpresakaz; Ikasenpresa; Urrats Bat; lanpoltsa@zulaibar.org; Errotan, Arratiako ingurune sozio-ekonomikorako garapenean; ikasle eta irakasleen mobikortasuna, Erasmus+, Global Training; Beteku, Berrikuntza Teknologikoa...

Oraingoan Ikasenpresa, Urrats Bat eta lanpoltsa@zulaibar.org proiektuakaz gatoz.

URRATS BAT: Lanbide Heziketako ikasleak eta ikasle ohiak euren

enpresak sortzeako programea.

Zulaibarreko ikasleai enpresa bat sortzeako prozesuan laguntza eskeiniko deutez.

Ikasle ohiak be, badaukazue programa honetan parte hartzeako aukerea.

Enpresa sortzerako orduan egin behar doguzan beharrak egiteko; bulegoa eta Zulaibarreko tailerrak eskeintzen dira.

IKASENPRESA: Enpresearen munda ikasgelara hurreratuko dogu eta gaitasun ekintzaileen garapena sustatu: sormena, barrikuntza, talde-lana, ebatziak hartzea, lidergoa, konpromisoa, ekimena, negoziatzena...

Ikasleak enpresa txiki bat montauko dabe ikasgelan, eta enpresearen jarduera guztiak egingo ditue (irudi korporatiboa, administrazioa, marketina, salerosketak, eta abar). Produktu errealek izango dira, eurak egindakoak edo

merkaturatutakoak.

Beste eskola-enpresa batzuek, merkataritza hartu-emonak izango ditue: merkaduko azterlanak egingo ditue, eta produktuen katalogoa trukatu dabe azkenean salerosketa bat egiteko.

Zezeilean azoka bat antolatuko da eta enpresak euren produktuak saldu ahal izango dabez bertan. lanpoltsa@zulaibar.org: Inguruko

enpresaren batek langileren bat kontratau gura badau, Zulaibarrera deitzen dau, eta guk lanpoltsa@zulaibar.org-en jasoten doguzan kurrikulumak bidaltzen deusaguz. Beraz behar bila bazabiz agindu zure kurrikulumua Zulaibarreko lanpoltsa zerbitzura.

Eskerrik asko Lanbide Heziketaren bidea aukeratu dozu enoi eta aprobetxau eskeintzen jatzuezan

aukera guztiak. Informazio gehiago [www.zulaibar.org](http://www.zulaibar.org), Facebook, Twitter edo 94 673 91 16 telefonora deituz.



[lanpoltsa@zulaibar.org](mailto:lanpoltsa@zulaibar.org)

Lan bila bazabiltza bidali zure Curriculum-a





## AGENDEA

**URRI BIGARRENAK 3  
ARRATIA**

Hilaren 21era arte, Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik.

Hilaren 30era arte, Lemoako Argazki Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik.

Zemendiaren 9ra arte, Beldur Barik Lehiaketan ikusentzunezkoak aurkezteko epea zabalik.

Hilaren 6ra arte, Zeanuriko Udaleko logo barria aukeratzeko Idea Lehiaketan proposamenak aurkezteko epea. Udaletxean.

**URRI BIGARRENAK 4  
DIMA**

Indusiko jaiak. 12:00etan, mezea; 13:00etan barauskarria; 14:00etan, zozketea.

**URRI BIGARRENAK 5  
BEDIA**

19:30ean, Martin Valmasedaren *Gure Aita* liburuaren aurkezpena liburutegian.

**IGORRE**

18:00etan, herentzia eta testamentuaren gaineko berbaldua Jubiladuen txokoa.

**LEMOA**

18:00etan, Kultur proiektuaren lehen lan saioa. Elizondoko Kulturgunean.

**URRI BIGARRENAK 6  
IGORRE**

18:00etan, Bizi (Igorre adinakoakaz adeitsuago izateko programea) proiektuaren 1. saioa. Kultur Etxean.

**URRI BIGARRENAK 7  
DIMA**

19:30ean konzentrazioa, "Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxean gure doguz!". Plazan.

**LEMOA**

Hilaren 9ra arte, Ganzabal Mendi Taldearen astegienerako urtekera Pirinioetara. Peña Montañesa (2.295 m.), Cotiella (2.912 m.), Turbon (2.492 m.).

**Antzerki estreinaldia Igorren**

Hika Teatroak, *Koadernoak zuri* lanaren estreinaldia egingo dau Igorreko Lasarte Aretoan. Urri bigarrenaren 8an, arrastiko zortziretan izango da.

Arantza Iturbe eta Agurtzane Intxaurrek idatzitako lan hau, Itziar Ituñok, Miren Gojenolak eta Agurtzane Intxaurrek antzeztuko dabe. Zuzendari lanak be Agurtzane Intxaurrek egiten ditu Tessa Andonegiren laguntzeagaz.

Antzeztan ahizta bi eta hil barri dan amaren istorioa kontetan dau. Begoña eta Arrate ama hildakoan eta hogeit urteren ondoren jaiote-txean egingo dabe topo, ustekabean. Begoña Afrikan bizi izan da urte askoz. Amarengandik igesi joan zan. Arrate, aldiz, etxean geratu zan amaren itzalean. Lanbidez, famili medikua da eta itxura batez bizimodu zoriontsua dauka. Ezkondata dago eta bi alaben ama da. Ahizta biak aurrez aurre alkartzeak alkarrerik kontuak eskatzeko balioko deutse. Ezer gitxi dakie amak batengan eta bestearengan itxitako arrastoez.

**URRI BIGARRENAK 8  
AREATZA**

11:30ean euskeraz; 13:00etan gaztelaniaz; 16:00etan euskeraz eta 17:30ean gaztelaniaz "Migrazinoen eta salgaien mobimentuak sortu eta sustatutako uribildua" bisitaldi gidatua eta erakusketa dinamikoa. Udaletxeko arkupean.

**DIMA**

08:30ean, Andraizea Larrunera.

**URRI BIGARRENAK 9  
AREATZA**

11:30ean euskeraz; 13:00etan gaztelaniaz; 16:00etan euskeraz eta 17:30ean gaztelaniaz "Migrazinoen eta salgaien mobimentuak sortu eta sustatutako uribildua" bisitaldi gidatua eta erakusketa dinamikoa. Udaletxeko arkupean.

**DIMA**

BTT Martzea. 08:30etik 09:15era arte izen emotea; 09:30ean urtekera.

**IGORRE**

10:00etan, Garbako Azokea.

17:00etan, zinea *Buscando a Dory*.

19:30ean, zinea *Cuerpo de elite*. Lasarte Aretoan

**URRI BIGARRENAK 10  
BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 21era arte, San Martin egunean (zemendiak 12) babak egiteko izena emoteko epea Liburutegian.

**URRI BIGARRENAK 13  
IGORRE**

20:00etan, zinekluba. *Thelma & Louise*. Lasarte Aretoan.

**URRI BIGARRENAK 14  
ARANTZAZU**

San Fausto jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**URRI BIGARRENAK 15  
ARANTZAZU**

09:30ean, Mugari Bira plazatik urtenda.

**AREATZA**

11:00etatik aurrera, Euskal Jaia.

20:00etan, Highlanders taldea The Quiet Corner-en.

**BEDIA**

09:30ean, urtekera Arantzazuko Artzain Eskolara.

**IGORRE**

Jubiladuak Nordic Walking.

17:00etan, Eidabe konpainiak umeentzako antzerkia *Baserrian Amets*. Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *La estación de las mujeres*. Lasarte Aretoan.

**ZEANURI**

10:00etan, San Justoko karobira ibilbide gidatua. Plazan.

**URRI BIGARRENAK 16  
IGORRE**

XXIX. Mugari Bira, Tomas Arandia memoriale. 08:00etan, ibilaldi luzerako izen emotea, 08:30ean ibilaldi luzearen urtekera eta ibilaldi laburrerako izen emotea; 09:00etan, ibilaldi laburreko urtekera.

17:00etan, zinea *Ice Age: El gran cataclismo*. 19:30ean, zinea *La estación de las mujeres*. Lasarte Aretoa.

**ZEBERIO**

20:00etan, zinea *Everest*. Eskola Zaharrean.

## IRAGARKI LABURRAK

**SALDU****PISUA SALGAI**

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m, 3 logela, komun 2, garajea eta trastelekua. Interesautu egon ezker, 686 495 724 telefonora deitu.

**MAKINARIA SALGAI**

Bedarra zabalduko eta batzeako makinak saltzean dodaz. Interesauak deitu telefono honetara 628 041 526.

**KIROL MAKINEA SALGAI**

BH Fitness Quick Easy Eliptic kirol makinea salgai. Telefonoa: 615 783 915.

**DANERIK****BAZKIDE BILA**

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesauak 649 979 115 telefonora deitu.

**OPARITZEN DA**

Urte t'erdiko artzai txakurra oparitzen da. Telefonoa: 635 207 386.

**GARRAIOLARIA BEHAR DA**

Enkarguak etxera erateko garraiolaria autonomoa behar da. Deitu 94 673 60

55 telefonora.

**ZERBITZARIAK BEHAR DIRA**

Areartzako taberna batek zerbitzari bat behar dau jantokirako, eta beste bat tabernarako. Interesdunak 688 616 816 telefonora deitu.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

**Begitu-lagunen txokoa****Zenbaki honetako saridunak:**

1

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Koadernoak zuri* antzeztanaren estreinaldirako.**


Martin Sagarna (Areatza)  
Miren Maiz (Dima)



2

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *La estación de las mujeres* filmarako.**

Xabier Arauzo (Igorre)  
Gaizka Agirre (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14

urte eta


ehundaka

lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Ez hemen, ez hor. Errusiako ibaia.  
2.- Gogobako. Jainkoa, hizkuntza semitikoetan. 3.- Tratu. 4.- Letra bat. Hazia ipini. 5.- Arsenikoa. Bokala. Hotz gehiegi dagoanean esaten dan esklamazinoa. 6.- Astun. Bokala. 7.- Poztu. 8.- Tantaloa. Toki. 9.- Asebate. Galdetzaila.

### GOITIK BEHERA

1.- Helioa. Lursagarra. 2.- Mosua. Alkarrizketa. 3.- Kantsazino. Nora atzizkia. Bokala. 4.- Lora sorta. 5.- Oxigenoa. Musika nota. Apurtu. 6.- Arratiako herria. Ukatze. 7.- Iluntasun. Edabe garbi.



Topau zazpi zibilazino desbardin enak.

A	G	O	R	A	H	A	R	A	K
Z	E	O	I	T	U	N	E	Z	A
K	U	R	D	A	N	E	Z	K	I
O	R	K	A	O	O	T	X	A	Z
N	E	O	B	U	A	U	I	K	E
E	G	U	L	A	K	K	R	E	N
R	A	M	P	A	L	A	K	T	O
K	I	R	Y	L	O	B	E	Z	A
O	Z	A	M	E	P	U	E	A	K
A	M	O	N	G	O	L	A	K	I
S	O	L	O	K	T	E	N	U	R
T	X	I	D	A	R	R	E	A	U
O	B	I	K	I	N	G	O	A	K
R	I	K	O	L	E	D	A	U	A
U	D	E	K	A	R	R	A	K	M

# AKI MI KO

Ka i l o



umean moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnua. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten  
dogu. Bixarra egin eta bukunduten dogu  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

**ARKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
KOSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**GARANTXE**  
Autoeskola  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnua: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@telefonet.net

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK:  
AUTOAK  
ETXEBIZITZAK  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
ABOKATUAK:  
ZUZ. ZIBILA  
KONTSUMO ZUZ.  
ADMINISTRAZIO ZUZ.  
INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA:  
LAN ZUZENBIDEA  
ZERGAK  
KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis  
Corbacho  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Dia %**  
**PEDRO**  
AUTOSERBITZU  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA** AUTOESKOLA  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: unozulu@arratia.net



## NURIA KORTA ALDAPE

# "Eskola agenda tresna bat da euskerea transmitiduteko, irakasteko eta gozatzeko"

Nuria Korta Aldape Igorrekoa, Zeberioko eskolako Normalkuntza Teknikaria da. 2011tik Arratia eta Zeberioko eskoletako teknikariak, eskualde osoan erabilteko eskolako agenda ateraten dabe. Aurten, andra eta gizonen arteko bardintasunari bultzadea emoteko, Arratia eta Euskal Herriko andren errealidadea, estereotipotik kanpo, hartu gura izan dabe agendearen gai moduan.

Horretarako, teknikariaren jakintzaz gainera, maistrearen sensibilitadea eta konpromisoa be ipini dauz Nuria Kortak. Izan be, aurten hamalagarren ikasturtea izango dau Zeberion maistra lanetan.

## Erredakzioa

### Hau ez da Arratia mailan atera dozun lehenengo eskola agenda, ezta?

Ez. Lehenengoz 2011-2012 ikasturtean atera genduan. Lehenengo ha *Umeen zentzune* CDtik ateratako kantakaz egin genduan. Gero beste agenda bat be egon da jolasen gainekoa; aurreko ikasturtekoak kantagintza eta literatura euki ebazan gaitzat, eta oraingoa andren gainekoa da.

### Zein da agenderen helburua?

Agendaren helburua euskerea transmitidutea da. Euskeraz eta euskereagaz gozatzea eta jolas-tea. Euskaldunak ez diranak be euskerara hurreratzea eta jakin dagiela ze polita dan euskeraz bizitea. Agenda tresna bat da euskerea transmitiduteko, irakasteko eta ezagutzeko. Helburua ez da bakarrik maisu-maistrak esatea "biharko debereak honeexek dira", edo hau pasau da, edo dana dala. Helburua da komunitade oso batek parte hartzea eta erabiltea eta gozatzea agenda horregaz. Familiak agenda zabaldu

dagiela ikusteko zer dagoan.

Euskerea da ardatza, helburu nagusia, baina zeharka beste gai batzuk be landuten doguz. Oraingoa gura izan dogu andrak baloretea eta andrak arlo desbardinetan egindako lana erakustea. Gura izan dogu, andren gaineko estereotipoak baztertuta, benetak andren presentzia indartu eta ikustarazotea.

### Zer topau daikie umeak eta gurasoak agenda horretan?

Hile bakotxean agertzen da lanbide bat eta andra batzuk. Adibidez: andrak eta industria Arratian; andrak eta baserria; andrak eta musikea; literatura; andrak eta eskubideak... andrak eta kirola, Zientzia eta Teknologia...

Hartu doguzan espazioak Arratia eta Euskal Herri mailakoak dira batez be. Andrak eta musikan Maurizia agertzen jaku eta bestea ez noa esaten ze bestea nor dan asmatu behar dabe ikasleak errastu batzuen laguntzeagaz. Andrak eta literaturan, Eider Rodriguez, Yolanda Arrieta eta Nagore Amondarain daukaguz. Ahalegindu gara Arratiako baten bat ateratzen.

Bardintasunaren bide horretan pausu bat emon gura izan dogu aurten, umeai eta hezkuntza komunitadeari konturatu arazoteko androk zer garan, zer izan garan eta zer dagoan egiteko. Eta arlo desbardinak jorratu gura izan doguz.

### Nortzuk eta zelan egin dozue agenda?

Arratia eta Zeberioko eskoletako Normalkuntza Teknikariak, hilean behin batzean gara Gorbeialde izeneko taldean, Igorreko Kultur Etxean. Komentetan da zer egiten dogun eskola bakotxean, zelan bultzatu ahal dogun euskeraren erabilerea, eskoletan, gurasoakaz, eta herrian, komunitade osoan. Eta agenda bateratua egiten dogu. Agenda, bardina da danontzat, eskolak eta Institu-

tua sartzean dira, Lemoako DBH be bai. Antzekotasun handiak daukaguz eskualdeko eskola guztietan eta lan bateratu honeguz eskualde kutsua emon gura izan deutsagu agendeari. Eskualde kutsua, alkarlana bultzatzeko.

Bileretan ebazten dogu ze eduki landuko doguzan agendan. Orain arteko agendetan esakuneak eta webgune interesgarriak be sartu izan dira. Maketazino lana Marakak egin dau.

### Eskolan maisu-maistrakaz eta etxean gurasoakaz erabilteko da agenda orduan.

Bai. Sano interaktiboa da. Adibidez, Andrak eta industria Arratian atalean, sarrera bat dago, kontetan da historia edo egoerea eta, kasu honetan, hiru personaje dagoz. Personaje biren izenak agertzen dira, baina hirugarrena personaje ezkutua da. Agendan zehar eta hilean zehar errastu batzuk dagoz personaje ezkutu hori topetako. Webgune bat dago eta hilaren amaieran personaje horren barri emongo da bertan. Jokoak, galderak edo asmakizunak dagoz personaje horregana

heldu ahal izateko.

Klaustroetan azaltzen da agendearen erabilerea eta gero tutore bakotzak agenda erabili eta etekina ateraten deutso gelan. Eta asmoa da familiak be etekina ateratea. Danon arteko lan bat izatea.

Udalak diruz lagunduten dabe eta azken urte bietan Mankomunitadeak be lagundu dau. Baina eskolatik bideratzen da. Batzuetan gurasoak dirua ipini behar izaten dabe, beste batzuetan gitxiago... dagoan diruaren arabera. **Badago beste proiektu edo ekimenik eskola guztiak alkarlanean egiteko?**

Eskualde mailan, Korrikan eskolak zeozer alkarregaz egin gura dogu. Beste idea batzuk be badagoz: Euskeraren Dekalogo, eta abar.

Ez neuke alkarrizketa hau amaitu gura Imanol Urbieta gogora ekarri barik. Bera izan da hainbat belaunaldiri musikea emon deutsana eta berak erakutsi deusku ahozko transmisioan musikeak daukan garrantzia. Beragaz hazi izan garanok transmizino lana egin behar dogu ondorengokaz. Eskerrik asko Imanol.



# ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

**Bolunburu Poligonoa, 19**  
**Amorebieta - Lemoa errep.**  
**48330 LEMOA (Bizkaia)**

**Tel. 946 31 44 06**  
**Fax. 946 31 20 26**  
**alkizabal@alkizabal.net**

**www.alkizabal.net**

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA